



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: THE GIRAFFE AND THE PELLY AND ME

© 1985, Roald Dahl Nominee Ltd.

© 1985 eta 1992, Quentin Blake

© Itzulpena: 2014, Joseba Santxo Uriarte

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-08-7

Lege-gordailua: M-16274-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Jira, Peli eta hirurok

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

*Neisha,
Charlotte
eta Lorinari*





Nire etxetik hurbil badago egurrezko eraikin zahar bezain berezi bat, zutik eta bakarrik errepidearen alboan. Aspalditxotik nabil ni eraikin horren barrualdea ikusi nahian. Atea, baina, itxita egoten da beti, eta leiho-tik begiratuta, ez dago ezer ikusterik, iluntasuna eta hautsa baino. Nik badakit, jakin, beheko solairua behinola denda izan zela. Oraindik irakur daitezke etxearen aurrealdeko karte-leko letra kolorgeak: GOZOGIÑE. Amak behin esan zidan antzina gure eskualde honetan gozogin izena eman ohi zitzaieiela gozoki-egileei eta baita haien gozokidendei ere, eta ordutik hona, eraikin hori ikusten

dudan bakoitzean gogora datorkit zelako denda ederra izango zen hori bere garaian.

Erakusleihoan letra zuritan hauxe jartzen zuen: ZALGAI.

10 Goiz batean, baina, ohartu egin nintzen norbaitek ZALGAI hitza ezabatu eta haren ordeaz SAILDUTA idatzi zuela. Une batez idazkun berriari begira geratu nintzen, irrikaz imajinatuz neu nintzela eraikin haren jabe berria, eta beraz, aukera paregabea nuela behinolako gozoki-denda hura berriz ere martxan jartzeko. Nik betidanik desiratu izan dut gozoki-denda bat edukitzea. Nire ametsetako gozoki-dendak pilaka izango lituzke txupatxusak, karameluak, tofezko gozokiak, zurrupakiak, gurinezko txingomak eta beste hainbat eta hainbat horrelako gutizia. Ene bada, zer ez nuen egingo nik gozoki-denda zahar hura nire eskuetan egon izan balitz!

Beste egun batean, errepidearen bestal-
detik eraikin zahar zoragarria ikusten eta
miresten nengoela, bat-batean itzelezko bai-
nuontzia irten zen hegan bigarren solairuko
leihoetako batetik eta zati-zati egin zen bu-
rrunba handiz errepidearen erdian!

Apur bat geroago, portzelana zuriko 11
konketa bat aineratu zen leiho beretik, zu-
rezko euskarri eta guzti, eta bainuontziaren
ondo-ondoan hartu zuen lur, egundoko as-
trapala eraginez. Horren ostean etorri ziren
sukaldeko harraska, txori-kaiola hutsa, lau
zutabedun ohantzea, bi ur beroko bonbil,
zaldi zabukaria, josteko makina eta batek ja-
kin zer gehiago gero!

Ematen zuen eroren bat ari zela etxearen
barrualdea erabat erauzten eta husten, ze-
ren orain ari baitziren txistu-hotsean kan-
poratzen eskailera-atalak, eskudel zatiak,
eta baita zoru-oholen sorta oso bat ere.



Ondoren, isiltasuna nagusitu zen. Luze itxaron nuen, baina ez zen beste txintik ere atera etxe barrutik. Orduan, kalea gurutzatu nuen, leihoen azpi-azpian jarri nintzen, eta ozenki esan nuen:


—Ba al da inor etxean?

Erantzunik ez.

13

Azkenean, iluntzen hasi zen eta etxera bueltatu behar izan nuen oinez. Baina ez izan zalantzarik biharamunean haraxe itzuliko nintzela, ez bainuen inola ere galdu nahi abentura kilikagarri haren hurrengo atala.

Biharamun goizean, GOZOGIÑErenera hurreratu nintzenean, begiz jo nuen lehenbiziko gauza ate berria izan zen. Lehengo ate marroi, zahar eta zikinaren lekuan norbaitek ate gorri berri bat ipini zuen. Ate berria itzela zen. Lehengo ate zaharraren bikoitza zenez altueran, guztiz barregarria ematen zuen. Buruari hazka lotu nintzen,



ESKAILERABAKOAK

Leiho Garbitzaileen
Enpresa
Zure etxeko leihoak
garbi baino garbiago
utzikiko ditugu,
eskailei zafarrik
erabitu gabe!

pentsatzen nork jarri ote zezakeen halako atea etxean, erraldoiren bat ez bazen; hain zen garaia ate hura!

Bestetik, norbaitek erakusleihoko SAIL-DUTA hitza ezabatu zuen, eta haren lekuan idazkera desberdineko hainbat ohar idatzizituen kristalaren gainean. Behin eta berriro irakurri nituen ohar haiek, zer arraio adierazten zuten ulertu nahian.

15

Aldi berean, saiatzen ari nintzen zarataren edo mugimenduren bat sumatzen etxe barruan; alferrik, baina. Hango etxean ez zen zirkinik ere sumatzen, baina halako batean... begitandu zitzaidan leihoetako bat astiro-astiro irekitzen hasi zela...

Orduan, BURU bat azaldu zen leiho irekiaren erdian.

Buruari begiratu nion. Buruak ere begiratu zidan niri, bere bi begi biribil, handi eta ilunekin.



Bat-batean, beste leiho bat zabaldu zen brastakoan, eta han zer agertuko eta pelikano zuri handi-handi bat, leiho-erlaitzean jarrita. Nik berehala jakin nuen zer txori mota zen, hain zuzen ere mokopean zuen konketa handi laranjagatik. Orduan, pelikanoak goitik behera begiratuta, ez zitzaidan, ba, abesten hasi!



*Oraintxe jango nuke
arrain bat gordinik!
Itsasoraino asko
falta da oraindik?*

—Bide zati on bat, bai, behintzat! —erantzun nion behealdetik—, baina herrian 17
arrandegia dugu, hemendik hurbil.

—Arran zer?

—Arrandegia.

—Zer arrano ote da hori? —harritu zen pelikanoa—. Ezagutzen ditut arrain-*tartak*, arrain-*bizkotxoak*, arrain-*makilatxoak*, baina *arrandegiak* ez ditut, ba, ezagutzen! Gozoak ote dira ditxosozko *degi* horiek?

Galdera horrek zur eta lur utzi ninduen; halandaze, gaia aldatzea erabaki nuen:

—Nor da horko leihoko laguna?


—Jira jirafa da bera! —erantzun zuen pelikanoak—. Ez al da ederra? Oinak beheko

solairuan ditu, eta burua goiko leihotik aterata!

Eta ikuskizun berez txundigarri hura biritzeko, hara non zabaltzen den alderik alde lehenengo solairuko leihoa, eta bertan tximino bat agertu!

18 Tximinoak dantzatxo bat eskaini zidan leihoko erlaitzetik bertatik. Zer zen baina argala tximinoa! Bazirudien alanbre iletsuz egina zela. Dantzatu, berriz, polito egiten zuen. Nik txalo jo nion beheko aldetik, bai eta trukean neure dantzatxoa hari eskaini ere, esker onez.

—Leiho-garbitzaileak gaituzu! —hasi zen abesten tximinoa.



*Leiho-garbitzaileak gaituzu, laguna,
egiten dakigunak oso lan txukuna.
Kristalak igurtzita, atera distira,
urtu egingo zara leihotik begira!
Gura baduzu gure ganora aztertu,
Jira, Peli eta hirurok beti gaude gertu!*

19

*Talde itzela gara, txit eraginkorra,
garbitu beharra non, gu atoan horra!
Maratzak gara geurez, roboten antzeko,
gu ez gara gelditzen tea edateko!
Guri dei egitea ez, gero, baztertu:
Jira, Peli eta hirurok beti gaude gertu!*

*Xaboia dugu lege, ura estandarte,
ez gara lotzen dena aratz utzi arte!
Baina eskailerarik gabe guk nahiago:
jirafa heltzen ez den tokirik ez dago!
Deitu, jirafarena dezazun ulertu...
Jira, Peli eta hirurok beti gaude gertu!*